Nafarrok arte eta ondare aparteko ingurune batean bizi gara baina, tamalez, ez gara askotan ohartzen. Eta hori egia baldin bada jende helduarentzat, are egiago izaten da Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, eskolatze denbora bukatuta sarri ondare horren arduradun izanen baitira.

Hemen aurkezten dugun lan honek hutsune hori bete nahi luke eta Lizarraldea BHIko ikasleak bere inguruko artea ezagutzera eraman eta bide batez ikastetxea bera maitagarriagotu eta ederragotu.

Esperientzia honek, ikastetxeko irakasle talde diziplinarteko batek burutuak, prozesu baten etapak banan banan deskribatu eta argazki bidez jasotzen ditu eta eredutzat aurkezten, Nafarroako beste ikastetxeren batek bide hori segitzera bultzatzeko.

Lizarra Merindadeko ondarea ezagutarazi eta zabaldu nahirik, CD bat ere heldu da argitalpenari erantsita, zeinak 139 argazki jasotzen dituen, erdaraz eta euskaraz aurkeztuak, eta bai paneletako ilustrazioak, kultur irtenaldiak eta esperientziaren ondorioz sortutako erakusketa ere.



*Ezagutu Nafarroa*
**Chipi-Txapa**
BILDUMA
sail monografikoa

sail monografikoa 4

**Lizarra-herria, gure inguruari begirada** Ondare historiko-artistikoaren ikerketarako eredu bat

4 sail monografikoa

**Cikak**
*aurkezten du*

# Lizarra-herria, gure inguruari begirada

## Ondare historiko-artistikoaren ikerketarako eredu bat

Nafarroako Gobernua







# Lizarra-herria,
# gure inguruari begirada





**Chipi-Txapa** bildumak lagun egin nahi die Nafarroako eskola umeei Nafarroa hobeki ezagutzen. Hartarako oso pertsonaia berezia izanen du bidelagun: **Cika**. Neskatiko honek lagunduko die Nafarroako eskola umeei eginkizun horretan eta beren lurraren historian, lege zaharretan eta Nafarroa hain bere gisako egiten duten hizkuntza, kultura eta ohituren aniztasunean interes hartzera bultzatuko.

**Luis Campoy Zueco**
*Hezkuntza kontseilaria*


*Titulua*
**Lizarra-herria, gure inguruari begirada**
Ondare historiko-artistikoaren ikerketarako eredu bat

*Bildumaren zuzendaritza*
Hezkuntza Berrikuntzarako eta Curriculumaren Garapenerako Atala
*Egileak*
Román Felones Morrás (koord.)
Alfredo Larreta Anocíbar
Xabier Larreta Anocíbar
*Argazkiak*
Xabier Larreta Anocíbar
Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundearen argazki artxiboa.
*Euskaratzailea*
Aitor Garmendia
*CD-ROMaren egileak*
Alfredo Larreta Anocíbar eta Ángel Marco Arizu
*Argitaratzailea*
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua
*Diseinu Grafikoa*
Carlos Álvarez. www.estudiooberon.com
*Moldiztegia*
Gráficas Lizarra
*ISBN:* 84-235-2835-9
*L.G.:* NA - 1110/2006



© NAFARROAKO GOBERNUA.
Hezkuntza Departamentua



*Bultzatzailea eta banatzailea:* Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Navas de Tolosa kalea, 21
Telefonoa: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
31002 IRUÑA
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones


# Lizarra-herria, gure inguruari begirada

## Ondare historiko-artistikoaren ikerketarako eredu bat

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua



# Aurkibidea


HITZAURREA . . . . 9

SARRERA . . . . 11

1. Lizarraldea BHI eta Lizarralde Ikastetxe . . . . 11
2. *Lizarra-herria, gure inguruari begirada* hezkuntza proiektua . . . . 12

I. KAPITULUA
LIZARRAKO MERINALDEA, ESKUALDE BEREZI BAT . . . . 15

1. Lurralde banaketa . . . . 15
2. Ingurune geografikoa . . . . 17
3. Populazioa . . . . 18
4. Ondare historiko-artistikoa . . . . 18

II. KAPITULUA
PROIEKTUAREN DISEINUA . . . . 27

III. KAPITULUA
IRAGARKI-TAULAK . . . . 31

1. Edukien hautaketa . . . . 31
2. Iragarki-taulen egintza . . . . 31
3. Hilabeteko iragarki-taula . . . . 32

IV. KAPITULUA
IRTEERA KULTURALAK . . . . . 35
1. Lehen irteera: Lizarralde Ikastetxearen maketak eta Arellanoko Villa erromatarra . . . . . 35
2. Bigarren irteera: Erromesak egun batez. Donejakue Bidea . . . . . 38
3. Hirugarren irteera: Viana eta Los Arcoseko monumentu bildumetara eginiko irteera . . . . . 41
4. Laugarren irteera: XX. mendeko artelanak Lizarran . . . . . 44
5. Jardueraren balorazioa . . . . . 48
6. Jardueraren memoria . . . . . 48

V. KAPITULUA
MERINALDEKO IKASTETXEETAN BURUTUTAKO ERAKUSKETAK ETA HITZALDIAK . . . . . 51
1. Proiektuaren fase berri baten ernatzea . . . . . 51
2. Erakusketa ibiltariaren iragarki-taulak . . . . . 52
3. Dibulgaziozko triptiko baten egitea . . . . . 53
4. Erakusketa ibiltariak eta aurkezpen hitzaldiak . . . . . 55
5. Jardueraren ebaluazioa . . . . . 56
6. Iragarki-taulak ikastetxean behin-betiko paratzea . . . . . 57

VI. KAPITULUA
MERINALDEAREN ZERBITZURA DAGOEN ERAKUSKETA BAT . . . . . 61
1. Proiektuaren jarraipena . . . . . 61
2. Erakusketaren edukia . . . . . 62

AZKEN OHARRAK . . . . . 69

# HITZAURREA

Proiektu honen egileak bezalako hezitzaile helduen bizitzan, hezkuntza eraberritze lan baten burutzeak jatorri bikoitza eduki ahal du: alde batetik, norberaren lan jardueran bilatutako helburu bat izan daiteke; bestela, ikasgelako eguneroko praktikaren ondorio logikoa baino ez da. Praktika honek, urteek ematen duten perspektibarekin, ikustarazten digu emandako eskola bakoi-tza bakarra eta errepikaezina dela, eta eskola horietan guztietan irakasle eta ikasleen arteko sormen prozesu bat ezarri ahal dela eta ezarri behar dela, nahiz eta berau txikia izan.



Giner de los Ríos de Innovación Educativa sarira aurkeztutako lanaren azala, honoko lanaren jatorria.

Aurkezten dugun lan hau bigarren mota honetakoa da. Badira lanaren hiru egileak elkarlotzen dituzten zenbait elementu, hara nola: bere eskualdearen historiaren eta artearen ikerkuntza erregio, nazio eta europar alorretan txertatzeko kezka; humanitateen ikerkuntzari jakintza-alor anitzetatik ekiteko gogoa, eta teknologia berriak ezagutzeko nahia, azaletik bada ere, horiek hezkuntza lanean erabiltzeko asmoarekin.

Premisa hauetan oinarritu da aurkezten dugun proiektu hau, sarrera, sei kapitulu eta azken ohar batzutan laburbilduta dagoena. Testu eta grafikoen ohiko euskarriari, CD bat gehitu zaio, non iragarki-tauletan zein erakusketetan ikusi ahal izan diren argazkiak biltzen diren, baita eginiko bisita kulturalen une ezberdinak ikusi ahal daitezkeen. Egia da hau ez da Lizarrako merinaldearen oparotasun artistikoaren sintesi oso eta ordenatua, baina, zalantzarik gabe, zonaldeko ondarearen erakusgarri on bat da, eta hori dela eta, sobera justifikatua dago honelako lan bat azaltzea.

Proiektu hau Hezkutza, Kultura eta Kirol Ministerioak antolatzen duen “Francisco Giner de los Ríos de Innovación Educativa 2002” sarira aurkeztu genuen, bertan finalera iritsitako sei lanen artean gelditu zelarik. Geroago, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduak onartu zuen, eta orain “Conocer Navarra” deituriko bilduma egoki baten barruan aurkezten da. Derrigorrezkoa da, beraz, edukitako harreragatik eta argitalpenagatik eskerrak ematea.

Azkenik, esan beharra dago egileetako bati jubilatzeko momentua iritsi zitzaiola lanaren prestaketa prozesuan zehar. Alfredo Larreta, 25 urte luzez “Lizarraldea” BHIko erlijio irakasle izandakoa, adibide bat izan da bai guretako bereziki, zein ikastetxeko lankideendako orokorki, laneko orduan arduratsua izatean, baita eguneratua egoteari dagokionean. Ondorioz, lan honekin omenaldi pertsonal bat eskaini nahi diogu bere lanaren azken xedea oso garbi izan duen irakasle bati; hain zuzen ere, pertsonaren heziketa osoa, bere kasuan, Lizarraldeako ikasleriarena.

EGILEAK





Oncinedako eraikinaren bista, institutuak bere 31 urteetan zehar izan duen egoitzetako bat.

# SARRERA

## 1. Lizarraldea Institutua eta Lizarralde Ikastetxea

1975an martxan jarri zenetik, "Lizarraldea" institutuak inguruko historia, arte zein paisaia-ondareen defentsa txertatu du hezkuntza alorrean. Horretarako, hainbat kultur bisita egin dira merinaldeko ingurune ezberdinetara. Diziplina ezberdinetako ordezkarien arteko eztabaidak, kultur asteak, ikasle guztiei irekitako matematika lehiaketak, pintura lehiaketak, baita fosilen erakusketa bat edo beste ere, ikastetxeko errealitatearen zati bat dira.

Ikastetxeko barne kultur jarduera hau, inguruko herrietara proiektatzen joan da. Proiekzio honetan garrantzi handia izan zuen Arkeologia Taldeak, zeinak, erakusketa ibiltari bat diseinatu eta gero, inguruko herri garrantzitsuenetan zehar ibili zen, biztanleriak gure kultur- eta arkeologi ondareek duten garrantziaz kontzientzia har dezan, baita babestu eta harrapatzaileengandik defendatzeko ere.

Baina esperientzia aberasgarri hau ez zen burutzerik izanen  Centro de Estudios Tierra Estella – Lizarralde Ikastetxe delakoaren elkarlanik gabe. Berau 1988an

sortzen da merinaldean zehar gure lurraren kultur ondarea ezagutzeko, defendatzeko eta jakitera emateko lanean dihardutén hainbat pertsonen lana koordinatzeko beharra ikusi zelako. Bere sorrerarako beste arrazoietako bat, herritarrak merinaldeko kulturan parte hartzeko bide egokiak sortzeko desioa izan zen.

CENTRO DE ESTUDIOS
TIERRA ESTELLA
LIZARRALDE IKASTETXE

Centro de Estudios Tierra Estella – Lizarralde Ikastetxeren logotipoa

CETE merinaldeko kultur erreferentzia nagusia da eta burutzen dituen jarduerak ugariak dira: ikerkuntza lanak, hitzaldi-sortak, erakusketak, zaharberritze lanak, ikus-entzunezko materialen prestaketa, argitalpenak, anaitasun-ekintzak, fotografi fondo baten sorrera…

## 2. *Lizarra-herria, gure inguruari begirada* hezkuntza proiektua

Material hau ikasgelako esperientzia zuzenaren fruitua da. Beraz, garrantzi gehiago ematen diogu alde praktikoaren azalpenari eta prozesuaren faseen deskribapenari, beronen oinarri teorikoei baino.

Gure aburuz, proiektu hau egin duten irakasleen interesen eta joeren elkarketak soilik egin du posible lan hau, bakoitzak banan-banan egitea ezinezkoa izanen baitzen. Hori dela-eta, material hau diziplina anitzeko jendez osaturiko talde batek egin eta aurrera eraman izan du.

Esperientzia bere osotasunean deskribatzeko saiakera bat egin da, prozesuaren atal guztiak aztertuz, baita hasiera batean eginezinezkotzat jotzen genituen haiek, finantziazioa esate baterako.

Lizarraldea BHIk badu dekalogo bat, non bere izaera agertzen den. Bederatzigarren puntuak zera esaten du, "zentroaren formazio jarduera Lizarrako merinaldean proiektatu". Hau da proiektuaren helburu orokorra, ondoren datozen beste hauekin batera:

- Lizarraldeako elementu esanguratsuenen ezagutzara lagundu, ondarearen ikuspuntu global baten barruan.
- Ikasleek bere ondare historiko eta artistikoa gehiago balioestea, eta artelan bat ikusteak ematen duen plazera sentitzen ikastea.
- Diziplina anitzeko beste ekintza batzuendako oinarri izatea.
- Iniziatiba hau eskualdeko beste eskola komunitate batzuetara hedatzea.

Lan hau aurkeztera eraman duen prozesuaren jatorria 1996 eta 1999 urteen bitartean inguruko monumentuak bisitatzeko eginiko irteera didaktikoak dira. Irteera horien xedea, arte estilo ezberdinek merinaldean utzitako arrastoa erakustea zen.





Santiago Bideak Nafarroan gaitzat hartzen duen dibulgaziozko liburu hau, Lizarraldea BHIko ikasleekin eginiko irteeretatik sortua da.

Behin 1996-97 ikasturtean urtero egin ohi zen bisita kulturalaren arrakasta ikusi eta gero, non ikasleen papera oso garrantzitsua zen irteera bakoitzaren aurretik, irteeran zehar eta ondoren, 1997-98 ikasturtean aurrerapauso bat eman zen, Los Arcosera egindako irteera bideoan grabatuz, Gaur egun, bideo hau erabiltzen jarraitzen da Lizarraldeko arte barrokoa aztertzeko.

Hurrengo ikasturtean, 1998-99an, diziplina anitzeko lan bat egitea posible zela frogatu zen. Hainbat mintegietako zein beste ikastetxeetako irakasleen partaidetzarekin, 1898ko gertakizunen inguruko lan bat egin zen, mendeurrenaz baliatuz.

Aurrekari hauen ondoren, proiektu bera 1999-2000 urtean hasi zen. Hurrengo kapituluetan zehar, beronen garapena azaltzen da, testua bera azaldu eta osatzen duten irudi batzuen laguntzarekin, proiektutik atera den argazki artxiboaren parte direnak.





Jurramendiko eta Monjardineko perfilak Lizarraldeko silueta bereizgarri-enetakoak dira.

# I. LIZARRAKO MERINALDEA, ESKUALDE BEREZI BAT

## 1. Lurralde banaketa

Geografikoki begiratuta, Nafarroaren ohiko zatiketa hirukoitza izan da: Mendialdea, Erdialdea eta Erribera. Alfredo Floristán irakasleak hiru eskualde bereizten ditu Mendialdean (IMeko Nafarroa Hezea, Pirinioetako Zeharkako bailarak eta Arro Aurrepirinearrak), bi Erdialdean (Ekialdekoa eta Mendebaldekoa edo Lizarraldea) eta beste bi Erriberan (Ekialdekoa edo tuterarra eta Mendebaldekoa edo lizarratarra).



Agertutako zatiketa ezberdinen artean, ikuspegi geografiko huts batetik begiratuta, aipatzekoa da Alfredo Floristán irakaslearena, mapan ikusten duguna.

Ekonomiarekin edo lurraldearen antolaketarekin zerikusia duten ikerketetan, "Nafarroa 2000" izeneko zonifikazioa gailentzen ari da, Nafarroako Gobernuak egina. Eskualde banaketa honakoa da: 1 Eremua (Ipar-Mendebaldea), 2 Eremua (Pirinioak), 3 Eremua (Iruña), 4 Eremua (Lizarraldea), 5 Eremua (Ekialdeko Erdiko Nafarroa), 6 Eremua (Goi Erribera) eta 7 Eremua (Tutera). Nafarroa, administrazioaren ikuspuntutik, epaitegi-barrutietan eta udalerrietan banatzen dira. Epaitegi-barrutiek historikoki merinaldeenak izan diren lurrak hartzen dituzte. Bost epaitegi-barruti daude, zeinetan hiru hiriburu merinaldeko berdinak dira (Iruña, Lizarra eta Tutera), baina ez da gauza bera gertatu Agoitzekoarekin (lehengo Zangozako merinaldea), ezta Tafallakoarekin (Erriberriko merinalde zaharra).

Hala eta guztiz ere, merinaldea da, gaur egun ere, Nafarroako bost lurralde eta historia zatiei deitzeko modu tradizional eta herrikoia, batez ere Lizarraldean.

Merinaldea, bere sorreran, merinoaren ardurapean uzten zen administrazio barruti bat zen. Merinoa goi mailako errege funtzionario bat zen, diru-bilketa eta zainketa ardurak zituena. Teobaldo II.aren garaian (1253-1270) lau merinalde zeuden: Mendialdea, Zangoza, Lizarrako Lurrak eta Erribera. Azken bi hauen arteko mugak finkatu gabe geldituziren urte askotan zehar, Behe Ega eta Behe Arga eskualdeei dagokionean, baina XIII. mendea amaitu aurretik lurralde hauek guztiak Lizarrako merinaldearen barruan geldituziren, XIX. mende arte aldaketarik eman ez zelarik. Aldaketa aipagarri bakarra 1407an eman zen, Erriberriko merinaldea sortu zenean Zangoza, Lizarra eta Erriberako merinaldeetako herriak eskuratuz. Biasteriko eskualdeari (Arabar Errioxa) dagokionean, Lizarrako merinaldearen barruan zegoen 1461ean Gaztelako erresumak bereganatu zuen arte.

XV. mendetik aurrera finkatua geratu zen Nafarroako bost merinaldeen mapa.






## 2. Ingurune geografikoa

Lizarrako merinaldea Nafarroako Hego-Mendebaldean kokatzen da. Iparraldean Iruñako merinaldearekin egiten du muga, Ekialdean, Iruñako zein Erriberriko merinaldeekin, Hegoaldean Errioxarekin eta Mendebaldean Arabarekin. 2.067 $Km^2$-ko hedadura du, hedadura honetan merinaldeko 72 udalerriak eta Urbasa eta Andiako mendizerrak sartzen direlarik.

Merinaldea Nafarroako hiru zona handietan zehar zabaltzen da, hasi Urbasa eta Andiatik (Mendialdea) eta Ebro eta Ega ibaien erriberetan amaituz (Erribera). Erdian Lizarraldea egonen litzateke (Erdialdea). Ega ibaiak zeharkatzen du Mendebaldetik Ekialdera Lizarraraino eta handik aurrera, Iparraldetik Hegoaldera Ebro ibaiarekin bat egin arte San Adriánen hegoaldean.

Bi unitate geomorfologikotan banatzen da: kantabriar erako mendizerra eta haranak Ipar eta Ipar-Mendebaldean, alde batetik, eta Ebroren depresioa, Hegoaldean. Lehenengoen artean aipagarriak dira Urbasa eta Andia, Lokizko Santiago, Kodes, Lapoblación eta Kantabria mendizerrak. Bigarrenen artean, mendixkez inguratutako depresioak ditugu, adibidez Aguilar, Berrueza, Valdega eta Mañeruko bailarak; Montejurra edo Viana-Los Arcos bezalako mendipeak; baita ibai ertzeko lautadak, muino luzatu eta igeltsuzko malkarrez inguratuak.
Merinaldearen orografia osatzeko, kubetak eta alubioiz osatutako mendiak leudeke.

Klimak eta landaretzak agerian uzten dute Lizarrako merinaldearen trantsizio izaera, Urbasa eta Andiako klima ozeanikoaren eta Ebro haraneko klima mediterraniar kontinentalaren artean. Prezipitazio kopuruak 400 eta 1.800 mm. artean dabiltza, eta bataz besteko tenperaturak 6º eta 14º C artean. Landaretzari dagokionez, I eta I-Mko mendizerretan eta kantabriar edo azpimediterraniar probintziari dagokion mendi isolatuetan ezik (non pagadiak, hosto txikiko hariztiak eta erkameztiak nagusi diren), merinaldea eskualde mediterraniarraren barruan sartzen da, eta bertako zuhaitz arruntenak karraska, artea eta abaritza dira.



Lizarrako merinaldea Urbasa eta Andiako mendizerretatik Iparraldean, eta Ebroko erriberetara Hegoaldean.

## 3. Populazioa

Nahasketa eta trantsizioa agertzen da Iparretik Hegoaldera. Antolakuntza administratiboa konplexua da, bereizten dira: hainbat kontzejuen baturatik eratorritako haraneko udalerriak, aitzinako haraneko udalerri hauetatik askatutako udalerri txikiak, eta populazio entitate bakarrez osatutako udalerriak. Landa munduko habitatean, alde batetik herrixka txikiak ikusten dira eta bestetik pilatutako herri handiak. Aniztasuna ikusten da ere bizimoduan: toki batzuetan abelazkuntza eta basogintza gailentzen dira, eta besteetan aldiz nekazaritza, bere barruan ere bereizi daitezkeelarik mediterraniar polilaborantza, monolaborantzarako joera duten lehorreko landaketak eta ureztatutako baratzak, kontserba industria garrantzitsu baten oinarri.

Populazioari dagokionez, 2006. urtearen hasieran nekez gainditzen ziren 60.000 biztanleak, 30 biz./Km2-ko populazio dentsitatea emanez, Nafarroako (50 biz./Km2) eta Espainiako (80 biz./Km2) bataz bestekoetatik nahiko urrun.

Populatze eredua Nafarroan zehar ikusten denaren oso antzerakoa da. Bada bizilagunik ez duen eremu bat ipar muturrean, populazio sakabanatua ikusten da mendiko haranetan (Ameskoa, Lana...), populazio sakabanatua ere ibaien goi haranean, noizean behin herri handiagoekin nahasten dena (Abartzuza, Zirauki...), eta geroz eta nukleo handiagoak eta elkarren artean banatuagoak Ebro haranera hurbiltzen garen heinean. Lizarrak soilik gainditzen ditu 10.000 biztanleak, 14 herri pasatzen dira 1.000 biztanletik, sei gehiago 500 eta 1.000 biztanleen artean daude eta beste guztiek 500 biztanle baino gutxiago dituzte, nahiz eta zenbait udalerri kontzeju anitzen batuketaren ondorio izan[1].

Ondorioz, eta nahiz eta geografian esanahi bera ez eduki, lan honetan zehar Lizarrako Merinaldea edo Lizarraldea izena emanen diogu aurkeztu berri dugun eskualdeari, azken hau aurkezten dugun esperientzia burutu den Bigarren Hezkuntzako Institutuari izena ematen dioena.

1. Lizarrako merinaldea hobeki ezagutzeko, kontsulta daiteke *Gran Enciclopedia Navarra* (*"merindad" eta "Estella, merindad de" ahotsak*, VII. liburukia, 313.-314. orr. Eta IV. liburukia, 467.-468. orr.) Iruña 1990.

## 4. Historia eta arte ingurunea

HISTORIAURREA. Oraingo Lizarrako merinaldean, Paleolitiko garaitik atzematen da giza presentzia, Urbasako Ordekan, Lizarran edo Zuñigan aurkitutako aztarna arkeologikoek frogatzen duten moduan. Burdin Aroa arte, biztanleriaren gehiengoa Iparraldeko mendialdean biziko zen. Baina garai hartatik aurrera, lautadak garrantzia handia lortu zuen, Ebroren inguruan dauden aztarnategiek erakusten digutenez.





Lurralde honen erromanizazioak Arellanoko *villa* erromatarrean du adibiderik garbiena, azken bi hamarkadetan, eta gure ikastetxeko irakasle eta ikasleen partaidetzari esker, ezagutzera emandako nekazaritza eta kultura konplexu bat.

ERROMANIZAZIOA. Lurralde hauek izan ziren erromanizazioari etekin handiena atera ziotenak, zeina zeltiberiarren aurkako gerrekin hasi zen eta kantabriar aurkako gerrekin jarraitu zuen baskoien herriaren hegoaldeko eskualde honetan. Zenbait galtzadek zeharkatzen zuten Lizarrako merinaldea, hara nola *Pompaelo* eta *Vareia* batzen zituena, geroago Donejakue bidea bihurtuko zena. Bide hauen aztarnak oraindik bistakoak dira, besteak beste, Ziraukin, Girgillaon eta Muzkin. Garrantzi berezia du Ebro ibaia zeharkatzen duen akueduktua, Lodosan dagoena, ziur aski *Calagurris* hiri hurbilera ura eramateko eraikia. Bestalde, itxura ezberdineko aztarna arkeologikoak ugariak dira, esate baterako inskripzioak, hilarriak, aldareak, miliarioak, txanponak eta keramika. Aipamen berezia merezi du Arellanoko Alto de la Cárcel delakoan dagoen aztarnategia, erromatar garaiaren amaierako *villa* bat, gure ikastetxeari hertsiki lotua, aurrerago azalduko dugun moduan[2].

2. Honi buruzko ikerketa zehatza ikus daiteke honoko liburuan: Mezquíriz, M.A., *La villa romana de Arellano*, Iruña 2003.

MUSULMANEN GARAIA. Musulmanek ez zuten arrasto sakonik utzi, eta bere presentziak ez zuen Tuterako merinaldean dakusagun garrantzia kulturala izan. Hala eta guztiz ere, gure eskualdearen Hegoaldea musulmanen eskuetan erori zen bitartean, Iparraldeko bailaretako biztanleak nolabaiteko burujabetzaz gozatzen zuten, islamiarrei zergak ordaindu behar izan zieten

Lorcako zubia, liraina, gogorra eta ia erabili gabea hainbat mendetan zehar, azken urteetan lurraldea zeharkatzen duten erromes ugarien pausuak sentitu ditu.

arren. IX. mendearen bigarren erdialdean, muga Kodes eta Jurramendiko lerro menditsuan kokatzen zen, abangoardian Deioko edo Monjardineko gaztelua zeudelarik, Antso Gartzeiz I.ak 908. urtean bereganatu zuena. Modu honetan, Lizarraldearen patua Iruñako erresumari lotuta gelditu zen, urteetan zehar hainbat pasarte eman baziren ere.



3. Donejakue bideak Nafarroan duen ibilbideaaren ikuspegi dibulgatzaile bat, ikasleriari bere bisitetan laguntzeko asmoarekin sortua, ikus daiteke FELONES MORRÁS, R: *Los Caminos de Santiago en Navarra*, Iruña 1999.

DONEJAKUE BIDEA ETA ARTE ERROMANIKOA. Behin kristauen eskualdearen jabetza ziurtatu zutenean, Lizarra izena hartuko zuen puntutik hurbil hainbat monasterio eraiki ziren: Iratxe, Irantzu, Azueloko Jorge Donea eta Labeagako Gema Donea. Bitartean, Santiagorako erromes bideak geroz eta garrantzi handiagoa eskuratu zuen, *Pompaelo*tik *Vareia*ra zihoan erromatar galtzada baliatzen zelarik. Behin Pirinioak zeharkatzen zuten bi bideak Garesen elkartu eta gero, bide honek Zirauki, Villatuerta, Lizarra, Los Arcos, Torres del Río eta Vianan barna jarraitzen zuen. Hainbat zubi topatu genitzake, hara nola Zirauki, Lorcan, Villatuertan eta Lizarran. Gainera, erromesak ongi hartzeko, hainbat ospitale eta ostatu zeuden, askotan elizekin harremana zutenak, Lizarran, Iratxen, Los Arcosen, Vianan edo Lapoblaciónen zeudenak bezala[3].



Lizarra sortzeko arrazoietako bat[4] Donejakue bideak hartu zuen garrantzia izan zen. Hiria 1076 inguruan fundatua izan zen, eta XIII. mendean zehar 4.000 biztanle izatera iritsi zen. Era berean, Gaztelako muga babesteko, Viana hiria eraiki zen 1219an, bertan bildu zelarik inguruko herrixketako biztanleria.

Donejakue bideari esker, Lizarra merkataritza gune garrantzitsua bilakatu zen eta eskualdeak garai oparo bat ezagutu zuen, batez ere XII. mendean eta XIII.aren lehen erdialdean. Erdi Aro aberats honen lekukorik hoberena arteen garapena izan zen, batez ere arkitektura erromanikoarena, zeinak bere amaieran monasterio handietan erabiltzen zen zistertar izaerako estilo aurregotikoarekin bat egin zuen.

Erromaniko aldiari dagokie Azueloko Jorge Donearen aitzinako monasterioaren eliza, nabe bakarreko eliz talde ugari bat, horien artean eredugarrienak Leartzako Andres Donea, Lizarrako Migel Donearen eta Ruako Pedro Donearen eliz handiak, Iratxeko monasterioa edo Torres de Ríoko eliza oktogonala. Garrantzi

4. Kalitatezko dibulgazio sintesi bat ITURBIDE DÍAZ, J, *Estella*, Iruña 1993.




Donejakue Bidea kale nagusi bat da, Nafarroa Europarekin lotzen duena Compostelarako joan-etorrian.

gutxiago izan arren, arkitektura zibilak bitxikeria bat utzi digu, Nafarroako Erregeen jauregia Lizarrako Rua karrikan.

Zistertar izaerako arkitekturak ere adibide oso aipagarriak utzi zituen, adibidez Irantzuko monasterioa, edo kanoi-ganga apuntatuaz estalitako nabeko bakarreko landa elizak, Gesalatz, Goñi, Allin edo Ameskoako bailaretako parrokiak kasu.

Erromanikoko monumentuzko eskulturaren adibide gutxi dauden arren, Lizarraldean dago Nafarroako estilo honetako Amabirjinaren irudirik ederrena, Iratxeko Maria Donearena, gaur egun Deikazteluko parrokian dagoena, eta Monjardineko gurutzea, Erromanikoko urregintza nafarraren gailurretako bat.




Lizarrako Merinaldearen Katalogo Monumentalaren lehen liburukiak Abartzuza eta Lizarra artean dauden udalerrietan mendeetan zehar pilatzen joan zen arte aberastasuna biltzen du. Aparteko oinordetza, zaintzera derrigortuta gaudena.

GOTIKOA. Gotikoa da eskualdearen une gorenetako bat. Viana, XIII. mendearen hasieran eraikitako gunea, gotikoaren hiria da. Bi eliz handi egin ziren garai hartan bata bestearen segidan, Pedro Donea eta Andre Maria. Lizarran eraikin berriak egin ziren (Domingo Donearen komentua) edo berreraikuntzak egin ziren (Pedro Donea). Eta hauekin batera, planta bakarreko elizen bertsio herrikoiaren adibide ugari daude lurraldean zehar.

Arkitektura zibilean, batez ere gazteluak eta gotorlekuak eraiki ziren. Lizarra, Los Arcos, Viana, Bakedano edo Girgillaoko Etxarren bi eraikin moten adibide erakusgarriak dira.

Eskultura gotikoak goi mailako adibideak utzi zituen: Lizarrako Puyko Andra Mariren iruditik hasita, Los Arcoseko Andra Marirekin jarraituz, eta Egiartekoarekin bukatuz, azken hau flandestar eragin nabariak dituena. Eskultura bilduma oparo eta bikain hau gurutziltzatu zein santuen irudiekin osatzen da.

ALDAKETA POLITIKOAK ETA BERPIZKUNDEA. 1512ko urriaren 30ean garai historiko bati eman zitzaion hasiera, Lizarrako hiria eta bere gaztelua, erresistentzia gogor baten ondoren, Fernando Katolikoaren tropen aurrean errenditu zirenean; 1515etik aurrera, merinaldea, Nafarroa osoa bezala, Gaztelako erresumari lotua gelditu zen. Garai berri hau, funtsezko aldaketa politikoen ondoren emandakoa[5], kulturaren eta artearen Berpizkundea ekarriko du. Lizarrak sona izan zuen garrantzizko gune humanistiko bezala. Honen froga gisa, hor daude bere komentuetan zeuden elizgizon graduatuen kopuru handia, Gramatikako Ikastetxea, Miguel de Eguiaren inprimaketa tailerra eta Lizarra ondoan zegoen Iratxeko Unibertsitate beneditarra.

5. Lizarrako Merinaldearen ikerketa historiko hoberena Aro Modernoari dagokio hain zuzen ere. Ikus daiteke FLORISTÁN IMÍZCOZ, A. *La merindad de Estella en la Edad Moderna: los hombres y la tierra*, Iruña 1982.

XVI. mendeko Berpizkundeko arkitekturak XII. eta XIII. mendeetan ezagututako distira berreskuratu zuen. Asko izan ziren garai hartan eraiki edo zabaldutako elizak, horiek guztiak une hartako gotiko euskaldunean, Abartzuza, Meano, Lezaun edo Oteitza kasu. Berpizkundeko estilo peto-petoan daude eraikiak Leringo parrokia, Vianako Andra Mariko ataria (agian Nafarroako Berpizkundearen gailurra), Los Arcoseko elizaren dorrea eta Iratxeko kalostrapea.

Arkitektura zibilak, erlijiosoaren maila bera eduki ez arren, Lizarrako Berpizkundearen distiraren beste adibide bat da. Zentzu honetan, Alloko udaletxea, Lizarrako Kristobal Donearen jauregia eta armarria duten hainbat etxeak kontutan hartzeko modukoak dira.

Erretaulen langintzak arkitekturak hainbat garrantzi du Lizarrako merinaldean. Estilo Platereskoan eginak daude Mendabia, Genevilla eta Lapoblacióneko erretaulak, aipagarriak direlarik azken bi hauek. Mendearen bigarren erdialdean eta XVII. mendearen lehen hamarkadetan hainbat ale egin ziren, romanista bezala ezagutzen ditugunak eta gure inguruko hainbat eliza beteko zituztenak. Lizarrako Joan Donea, Andosilla, Garisoain edo Allo dira adibiderik ederrenak.

Era berean, urregintzaren momentu gorena ezagutu zen, parrokietarako gurutzeekin batez ere, non Ziraukiko Roman Donekoa denetan hoberena den.

BARROKOA. Espainiako beste tokietan bezala, Nafarroan ere XVII. mendeko krisi ekonomikoa nabaritu zen. Horrexegatik, jarduera artistikoak atzerakada handia ezagutu zuen, eta bakarrik mende honen amaieran eta XVIII.aren hasieran, behin estilo barroko aberatsa eta ikusgarria inposatu zenean, esan daiteke goraldi berri bat eman zela.

XVII. mendean, berrikuntza bat eman zen Lizarran edo Vianan ordena erlijiosoen eskutik. Lizarrako beneditar eta klaratar lekaimeen komentuak, eta Vianako frantziskotarrena dira horren erakusgarri.

Mende aldaketak lan ikusgarriei eman zien hasiera, Los Arcoseko Andra Maria esaterako, eta zertxobait beranduago, Sorladako Gregorio Ostiako Donea basilika, Nafarroako rococo-aren lan gorena. Eliza askotan dorreak altxatu ziren, edo zeudenak berreraiki ziren, errioxar eredu zehatz bati jarraiki, adibidez Kodesko Aguilarren, Desoion, Deikaztelun, Eulaten edo El Buston. Erriberan, adreilua erabili zuten Carcarren edo Andosillan.

Eraikin zibilen kopurua handitu egin zen. Lizarra, Viana, Los Arcos, Sansol, Muniain edo Lodosan jauregi eta udaletxe kopuru on bat gordetzen da, non armarriak ezaugarri inportanteenetako bat diren.

Erretauletan ere, Berpizkunde garaiko bikaintasunera iritsi gabe ere, hobekuntza bat ikusten da. XVII. Mendearen lehen erdi aldean estilo romanistako traza mantendu zen, Iratxeko erretaulan kasu, gaur egun Deikazteluko parrokian dagoena. Cabredo, Viana eta Los Arcosen daude barroko estilo betearen erakusgarri onenak, eta rococo estiloa Carcarreko edo Ostiako Gregorio Donearen elizetan gailenduko da.

Margoen dekorazioa eskasa da, arkitektura edo eskulturarekin konparatzen badugu bederen. Zenbait lan tenebrista eta Ama Birjinaren irudietatik at, ez dago aipatzea merezi duen artelanik.

XVIII. mendearen amaieran ostera, badugu lan gogoangarri bat, Vianako parrokian dagoen Ramoko Joan Doneari eskainitako kaperako horma-irudiak alegia. Bere egilea Luis Paret margolaria izan zen.

Katalogo Monumentalaren bigarren liburukia, Lizarrako Merinaldeari eskainia, aurrekoaren antzerakoa, Genevilla eta Zuñiga artean dauden udalerrietan dagoen ondare artistikoa biltzen du.




**XIX.MENDEA ETA MODERNISMOA.** XIX. mendea oso gatazkatsua izan zen Nafarroan. Lehendabizi, hainbat altxor deuseztatu eta desagertu arazi zituen frantziar inbasioak. Honen berri parrokietako artxiboetan azaltzen da, ze bere inbentarioetan aipatzen da zer zegoen inbasioaren aurretik eta ondoren. Ondoren, gerra karlistak etorri ziren, merinaldean bereziki gordinak izan zirenak, bertan bizi baitzen erregegai karlista. Gertakizun horiek guztiek ez zuten garapen artistikoa ahalbideratu, aldiz gainbehera nabarmen bat ekarri zuten, aitzinako garai oparoekiko malenkonia sentimendu bat eraginaz.

Hori eta guzti, badira neoklasizismo estiloko zerbait artelan deigarri. Horien artean, aipatu Mañeruko elizaren birmoldaketa, Alloko parrokia, Arroitzeko eta Mendabiako dorreak, edo Sansoleko erretaula.

**XX. MENDEA.** XX. mendean sartuz, badira lehen hamarkadetako arte agerpenak, joera eklektikokoak: Lizarrako autobus geltokia eta udaletxea, Bearingo parrokia eta Puyko basilika.

Mendearen bigarren erdialdea modernotasunari ateak irekitzeko beldurrarekin hasi zen, baina azken urteetan joera berritzaileen barruan sar genezakeen zenbait eraikin egin izan dira. Iratxeko ardandegia (Patxi Mangado lizarratar arkitektoaren lana) edo Arintzanoko Jaurreriko ardandegia (Rafael Moneo tuterarrak egina) dira esandakoaren bi erakusle garbi.

Amaitzeko, margolaritzari dagokionean, ezin dugu ahaztu Gustavo de Maezturen lana, Lizarrara bizitzera etorri zena, eta bere artelanaren zati handi bat hiriari utzi ziona. Bere aldetik, Lizarrako herriak bere eraikinik bitxiena, Nafarroako Erregeen Jauregia, berreskuratu zuen haren izena daraman museo monografikoaren egoitza bihurtzeko[6].

6. Nafarroako ondare artistikoa María Concepción García Gainza irakasleak zuzendutako talde batek eginiko ikerketa zabal batetan aztertua izan zen. Honen emaitza, 9 liburukietan banatutako lana dugu, horietatik bi Lizarrako merinaldeari dagozkiolarik. Aurreko orrialdeak lehen liburukiari eginiko hitzaurrearen laburpen bat dira, hau baita merinaldeak izan duen bilakaera artistikoaren sintesi egokiena. GARCÍA GAINZA, M.C. (zuzendari), *Catálogo Monumental de Navarra, Merindad de Estella*, 2 liburuki, Iruña 1982-1983.



Lizarra, merinaldeko hiriburu historikoa, bada hiriburu artistikoa ere, lehen mailako monumentu sorta batekin, estilo garrantzitsuenen bilduma suposatzen duena.



## II. PROIEKTUAREN DISEINUA

1996-97, 1997-98 eta 1998-99 ikasturteetan zehar Batxilergoko 2. mailan Arte Historia ikasten ari ziren ikasleek egindako irteera kulturalek balorazio baikorra jaso zuten ikasleen aldetik, eta agerian utzi zuten zeinen inportantea izan zitekeen merinaldeko arte ondarearen erabilpena curriculumaren edukien ikasketan, baita ikasleek hain aberatsa eta hain hurbila den ondare horren inguruko ezagutza eza.

Bestalde, institutuaren eraikina berritu egin zen, eta Lizarraldea izena jaso zuen. Iruditu zitzaigun ailegatu zela eskualdearen ondare artistikoa erabiltzeko, ez hezkuntza baliabide bat bezala soilik, baita gure ikastetxea toki atseginago eta hurbilago bihurtzeko, hezkuntza komunitatea osatzen dugunontzako ere.



Leartzako Ander Donearen eliza, Nafarroako landa erromanikoaren eraikin bikainenetako bat, Lizarrako merinaldean zehar sakabanatuta dauden artelan ezezagun andanaren adibide bat.



Eskualdeko arte ondareak eskaintzen digun ezusteko atseginenetako bat Gatzagako Pedro Donearen eliza dugu, Deikazteluko aldirietan gelditzen diren hondakin batzuk. Bere barnealdearen sinpletasuna eta edertasuna harrigarriak dira benetan

Honela sortu zen iragarki-taula sorta bat egiteko ideia, non Lizarrako merinaldeko ezaugarri esanguratsuenak agertuko ziren eta era berean, ondarearen ezagupena handitzera bideratutako zenbait esperientzien bilgarri izanen zen dokumentu grafiko bat izan zedin: hitzaldiak, erakusketak, etab.

Hori egiteko, argazkigintzan aditua den pertsona baten beharra zegoen, ezinbesteko elementua burutzear zegoen proiekturako. Pertsona hori Giza Zientziak, Geografia eta Historiako mintegian bertan zegoen, ze Xabier Larreta, mintegi horretako irakasleak, eskarmentu handia zuen argazkilari gisa, Lizarralde Ikastetxearen proiektuetan aritua baitzen.

Azkenik, teknologia berrietan aditua den pertsona bat behar zen, lortutako material guztiei forma emateko orduan. Lan hori beteko zuena ere institutuko irakasle bat izan zen.

Behin hiru irakasleen borondateak eta ahaleginak elkarren artean koordinatu eta gero, Lizarralde Ikastetxerekin jarri ziren harremanetan, merinaldeko ondarea hedatzen jarduten den erakundea baita. Elkarlan hau errazagoa suertatu zen kontutan hartzen badugu hiru irakasleok erakunde horretako partaide bagarela ere.



Dena dela, proiektuari funtsezko atal bat jorratzea falta zitzaion, hezkuntza arloko hainbat ekimen atzera botatzea derrigortzen duena: finantzaketa. Argi zegoen atal hori betetzeko banketxe baten laguntza beharko zela, beti ere inbertsioaren egokitasunaz eta errentagarritasunaz konbentzitzen bazitzaion. Caja Laboral Popular – Euskadiko Kutxarekin eginiko kontaktuek emaitza onak eman zituzten, jada Lizarralde Ikastetxerekin elkarlanean aritua baitzen beste proiektu batzuetan.

Lehen harremanak eduki eta gero, eta proiektuaren hasierako bideragarritasuna baloratu ostean, proposamen formal bat aurkeztu zen, lehenengo eta behin Giza Zientziak, Geografia eta Historiako mintegiari, haren erantzuna baikorra izan zelarik. Geroago, ikastetxeko zuzendaritzaren eta Lizarralde Ikastetxearen zuzendaritzaren oniritzia jaso zuen. Azkenik, Euskadiko Kutxako erregio zuzendariaren edukitako kontaktuen eta proiektuaren aurkezpen formalaren ondoren, finantzaketa emateko konpromisoa lortu zen, sinatutako akordioan zehaztutako baldintzetan. Onartutako aurrekontua 4.800 eurotakoa izan zen.

| **11,30:** | Tiempo para el bocadillo |
| **12,15:** | Visita a la basílica Nuestra Señora del Puy |
| **13,00** | Visita al Polideportivo de Estella |
| **1,30** | Aperitivo para los asistentes. |

Egindako azken bisita kulturalaren diptikoak bisitaren helburuak, aurreikusitako programa eta beronen gidoia jasotzen zituen.

tu Lizarrako hiriak azken manifestazio artistikoetan araka-tzeko aukera ematen duen elementuak.

Betiko legez, ikasleek diptiko bana jaso zuten, non bisitaren helburua, ekimenaren balantze bat, aurreikusitako programa eta gidoia ematen zitzaien.

Irteera hasteko, Lizarra eta Gasteiz lotzen zituen trenbideko geltoki izandakoa ikusi genuen, gaur egun musika eskolaren eta autobus geltokiaren egoitza bilakatu dena. Eraikuntza hau eklektikoa da, bai Espainiar estatuan zein Nafarroan XIX. mendearen bigarren zatian eta XX. mendearen lehen erdialdean oso modan egon zen estiloa.

Handik Nafarroako Erregeen Jauregira joan ginen, gaur egun Gustavo de Maeztu Museoa dena. Eraikin hau jada aztertua zegoen kanpotik Donejakue Bidea ezagutzeko egin zen bisitan, baina baziren bisita honetan sartzeko bi arrazoi: egindako berreraiketa bikaina eta Maezturen margoen bilduma monografikoa, Lizarrara bizitzera joana eta XX. mendeko margolari bikainenetariko bat Nafarroan.

Ogitartekoa hartu eta gero, Puyko Andra Mariaren basilika, Lizarrako patroia dena, bisitatzera joan ginen, hiriaren gainean aurkitzen den muino baten puntan dagoena. Eraikuntza barroko zaharra erortzeko zorian zegoen XX. mendearen hasieran. Hori dela eta, beste eraikuntza berri batez ordezkatua izan zen, Victor Eusak, mende hartako nafar arkitekto onenetariko batek egina.

Azkenik, bisitaren eta programaren amaiera bezala, Lizarrako polikiroldegia bisitatu genuen, hirian XX. mendearen bigarren zatian egin diren eraikinetatik interesgarriena.

Bisita honen berri eman 2000ko ekainaren 15eko *Diario de Navarra*n agertutako notiziak. Bisitaren helburua, informazioak dioenez, “gaur egungo arteare-

Euria ez zen oztopo izan XIX. eta XX. mendeko eraikin adierazgarrienak ikusteko bisita ez egiteko. Irudian, ikasleak lehengo Gasteiz-Lizarra trenbidearen geltokiaren aurretik igarotzen.







Gustavo de Maeztu Museoko gida bere lanean, ikasleen begirada arretatsua jasoaz.

kiko estimua handitzea eta bere balioa errespetatzen ikastea ziren, nahiz eta bere ulermena beste estiloena baino zailagoa gertatu”.

Polikiroldegian bertan, joandako guztiendako eginiko hamaiketakoarekin amaitu ziren bisita kulturalak.



Puyko basilikaren bankuak ikasgela bihurtu ziren une batez Eusaren eraikina eta Amabirjinaren irudi ederra begiratzeko.

## 5. Jardueraren balorazioa

Esan beharra dago, bai bisita hau zein aurrekoak ikasleek landuak izan zirela. Unitate didaktikoari zegokion koadernoan, ikusitako eraikinen ezaugarriez gain, bisitaren balorazio pertsonal bat egin behar zuten. Ikasle askok bat egin zuten ekimena positiboa izan zela esaterakoan, nahiz eta berau larunbatean burutu. Hain adierazgarriak eta anitzak diren monumentuak bertatik bertara bisitatu ahal izatea, eta bere etxetik hurbil bakarrik liburuetan agertzen zirela uste zuten artelanak topatzea, ia denek modu baikorrean baloratu zuten esperientzia bat izan zen.

## 6. Jardueraren memoria

Proiektuan buru belarri sartuta zeuden erakundeei zein babesleei, egindako lanaren inguruko informazio zehatza emate aldera, jarduerari buruzko memoria zehatz bat idatzi zen, non ekimenaren nondik norako guztiak jasotzen diren.

Hori posible izan zen, proiektua burutu zuen arduradun taldeak beronen pausu guztiak dokumentatzeko erabakia hartu zuelako. Argazki erreportajeek, komunikabideei emandako informazioak, zeinari esker irteeren berri zabala eman zen irratian eta prentsan, eta diptikoek, dokumentazio ugari biltzea ahalbideratu zuten, eta horretan oinarrituz lan hau egin da.



**El instituto Tierra Estella concluye en la ciudad del Ega sus recorridos culturales**

■ El instituto Tierra Estella concluyó, con un recorrido por la ciudad del Ega, el programa de visitas culturales realizado durante este curso. La iniciativa «Una mirada a nuestro entorno» se centró el pasado sábado en las manifestaciones artísticas del siglo XX, en concreto en la antigua estación de ferrocarril Estella-Vitoria, el Museo Gustavo de Maeztu, la basílica Nuestra Señora del Puy y, como ejemplo de construcción más reciente, el polideportivo municipal, inaugurado hace sólo cinco años.

El programa, realizado en colaboración con el CETE (Centro de Estudios Tierra Estella), ha consistido en tres salidas a distintos puntos de la merindad. A los ejemplos de la Prehistoria y la Romanización, siguieron el románico, el gótico, el renacimiento y el barroco. Aunque se trata de una actividad abierta a todo el mundo, se dirige de forma prioritaria a los alumnos de Historia del Arte y Geografía e Historia de Navarra. La visita ha tenido como objetivo *«acrecentar el aprecio por el arte de nuestro tiempo y aprender a respetar su valía, aún cuando su compresión resulte más difícil que estilos anteriores»*.

DDN

**Momento de la última visita realizada por los alumnos del instituto Tierra Estella.**



Gaur egungo arteari buruzko azalpen batek, Lizarrako polikiroldegiaren sarreran kokatuta dagoen eskultura moderno baten alboan egina, Institutuko irteera kulturalei amaiera eman zien.



"TIERRA ESTELLA,
UNA MIRADA A NUESTRO ENTORNO"



MEMORIA DE LA ACTIVIDAD

JUNIO 2.000



INDICE

| | Página |
|---|---|
| Presentación | 2 |
| 1. Introducción | 3 |
| 2. Paneles diseñados | 3 |
| • *PREHISTORIA* | 4 |
| • *LOS VASCONES Y LA ROMANIZACIÓN* | 6 |
| • *EL ROMÁNICO Y EL CAMINO DE SANTIAGO* | 8 |
| • *EL GÓTICO* | 10 |
| • *RENACIMIENTO* | 12 |
| • *BARROCO* | 14 |
| • *ROCOCÓ Y NEOCLÁSICO* | 16 |
| • *ECLECTICISMO* | 18 |
| • *EN BUSCA DE LA MODERNIDAD* | 20 |
| 3. Salidas culturales | 22 |
| Primera salida cultural | 23 |
| Segunda salida cultural | 27 |
| Tercera salida cultural | 30 |
| Cuarta salida cultural | 33 |
| 4. Ecos en la prensa | 36 |
| 5. *GASTOS Y FACTURAS* | 47 |

**APÉNDICE**: Proyecto de Junio de 1.999:
*"Tierra Estella, una mirada a nuestro entorno"*

79 orrialdeko memoria zehatz batek, zeinaren lehen bi orrialdeak hemen agertzen diren, ekimenaren xehetasun guztiak jaso zituen.





Ramoko Joan Donearen hondakinek, gure proiektuaren sinbolo bihurtu dugun arku apuntatua gordetzen dute. Denboraren pasatzeak eta gizakien arduragabekeriak eragindako txikizioak eta guzti, bada oraindik baikor izateko arrazoirik.

## V. MERINALDEKO IKASTETXEETAN BURUTUTAKO ERAKUSKETAK ETA HITZALDIAK

### 1. Proiektuaren fase berri baten ernatzea

Aurreko orrialdeetan azaldutako proiektuaren harrera ona ikusita, proiektuarekin jarraitzea erabaki zen, jarduera esparrua eskualdeko ikastetxeetara hedatuz. Elkarrizketa saio berri bat egin zen, eta proiektuaren bigarren fase honendako finantziazioa eskuratzeko dokumentu bat idatzi genuen.

Erakusketa hau ikastetxeetako ikasleei zuzenduta zegoen batez ere, eta haien bitartez, herri bakoitzean kulturarekiko kezka duen hiritarrei.

Egonaldi epe minimo bat eta erakusketa egutegi bat finkatu genituen, ikastetxe eta herri ezberdinekin adostasun batera iritsi eta gero, bertako zuzendaritza eta udaletxeekin elkarlanean.

2000-2001 ikasturterako jarduera proposamenaren nondik norakoak hauek dira:

• Egindako 9 iragarki-taulen erakusketa, eta aurkezpeneko berri bat gehitzea.
• Proiektuaren aurkezpen orokorra, zein merinaldeko ondare artistikoaren aurkezpen zehatza egiteko balio izanen zuen hitzaldi bat.
• 9 iragarki-taulen hedapen triptiko bat egitea, non galdera didaktiko erraz batzuk gehitu ziren, ikasleek eta, oro har, erakusketako bisitariek landu zezaten.

Erakusketa ibiltaria DBH eta Batxilergoko ikasketak ematen dituzten ikastetxe guztietan eginen zen. Hau da zerrenda osoa:




Proiektuaren bigarren faserako proposamenaren azala, kanpo proiekzioari loturikoa.

• Viana
• Mendabia
• Los Arcos
• Lodosa
• San Adrián
• Azagra
• Zudairi
• Lizarra: Lizarraldea BHI (San Poleko egoitza)
• Lizarra: Lizarraldea BHI (Remontivaleko egoitza)
• Lizarra: San Andrés Ikastetxea.
• Lizarra: Lizarra Ikastola

Lehen fasean gertatu bezala, erantzuna baikorra izan zen eta 2000. urteko ekainaren amaieran alde ezberdinen arteko hitzarmena sinatu zen. Proiektuaren bigarren fase honetarako, 4.900 ?ko finantziazioa zegoen.

## 2. Erakusketa ibiltariaren iragarki-taulak

Iragarki-taulak, ikasleak motibatzeko eta ikastetxeko pasilloak girotzeko helburuarekin sortuak, hasieran aurreikusita ez zegoen beste xede bat zuten: merinaldeko ikastetxeetan erakutsiak izatea. Bidezkoa zirudien, beraz, egindakoak kontserbatzea eta beste bat gehitzea, erakusketa-zikloaren iragarpena eginen zuena.



Iragarki-taula berri honek, programaren leloaz eta “, euskaraz eta gazteleraz idatzitako “Erakusketa” leiendaz gain, “25 años” zioen logotipo bat zeraman, Lizarraldea Bigarren Hezkuntzako Institutuaren zilarrezko ezteien aipamena egiteko. Araseko frantziskotar komentu zaharraren arku apuntatuaren argazki handi bat, alegia eraikuntza hartatik zutik dirauen aztarna bakarra, hondoan merinaldeko zeru urdina duelarik, gure aurrean irekitzen zen zerumuga iradokitzailea ekarri nahi zuen gogora.




Araseko aitzinako komentu frantziskotarraren arku apuntatuaren argazki handia, Erdi Aroko eraikin zaharretik zutik gelditzen den bakarra, merinaldearen zeru urdinean txertatua, erakunde partaideen logotipoekin batera, erakusketa aurkezten duen iragarki-taulan agertzen diren elementuak dira.

## 3. Dibulgaziozko triptiko baten egitea

Erakusketaren izaera hedatzaileari begiratuz, egokitzat iritzi genuen bertara joaten ziren guztiei erakusketaren oinarrizko gida edo triptiko bat eskaintzea, non 9 iragarki-taulak birproduzitzeaz gain, erakusketaren aurretik, zehar eta ondoren gaia lantzeko galdera erraz batzuk agertzen ziren.

Triptikoaren 4.000 ale argitaratu ziren. Hauek ikastetxeetara bidaltzen ziren, ikasleek erakusketa aldez aurretik prestatua izan zezaten.

Beste triptiko mordo bat erakusketa bisitatu nahi izan zuen beste ikasle batzuendako, zein herri ezberdinetako herritarrendako eskuragarri egon ziren.







Gaur egun, sobera gelditu ziren aleak Lizarraldea BHIko ikasleek erabili ohi dituzte, arte historiako garai ezberdinak aztertzeko jardueretan erabiltzeko. Esan beharra dago material honen erabilpenaren emaitza ona dela oro-korrean.

## 4. Erakusketa ibiltariak eta aurkezpen hitzaldiak

2000ko irailean zehar, proiektuaren arduraduna DBH eta Batxilergoko ikasketak ematen dituzten ikastetxeekin harremanetan jarri zen. Lehen harreman honetan, proiektuaren nondik norakoa eman zitzaien jakitera, eta erakusketa zein hitzaldia jasotzeko zuten asmoa norainokoa zen aztertu zen. Ikastetxe guztiak, hasiera-hasieratik, aldeko jarrera agertu zuten, eta ondorioz, aurreikusita zeuden hamaika ikastetxeek baiezkoa eman zioten eki-menari.




Mapari esker, erakusketak eginiko ibilaldia jarraitu ahal dugu, zeinak merinaldeko herri nagusienak bisitatu zituen.

Egun batzuk geroago, jarduera xehetasun gehiagoz aurkezten zuen gutun bat bidali zen ikastetxe bakoitzera.

Arazo batzuk tarteko egin behar izan ziren aldaketa batzuen ondoren, urriaren hasieran egutegia zehaztua eta itxia zegoen. Eskualdeko mapa batek, aurreikusitako data eta herrien izenekin batera, ekimenaren nondik nora zehaztuko zen adierazi zuen.



Komunikabideek proiektuaren berri emateko egin zen prentsaurrekoaren berri eman zuten.

Erakusketa eta hitzaldi sorta honen aurkezpena Lizarraldea BHIko liburutegian egin zen, urriaren 28an.




Viana eta Los Arcoseko airetiko ikuspegia, erakusketa egon zen herrietan artean, hiri-multzo ederrenak.

### 5. Jardueraren ebaluazioa

Aurreko orrialdeetan, behin eta berriz aipatu baditugu ere egindako erakusketa eta hitzaldi bakoitzaren ebaluazioa partzialak, puntu honetan jardueraren osoko balorazio bat egin nahi da,

Ebaluazioa galdetegia ikastetxe bakoitzean jardueraren ardura hartzen zuen pertsonari ematen zitzaion, gehienetan Gizarte Zientzietako irakaslea izaten zelarik, eta esaten zitzaion behin erakusketa eta hitzaldia amaitutakoan, Lizarraldea BHIko programa koordinatzaileari bidaltzeko. 12 ikastetxeetatik, 10ek bidali zuten euren ebaluazioa.

Hauexek dira azken emaitzak:

- **1. galdera:** *Erakusketaren interesa,modu globalean begiratuta: 8*
  Nota altu honek adierazten du erakusketaren balorazioa baikorra izan zela eta baliagarria zela ondarearen hedapen tresna gisa erabiltzeko.
- **2. galdera:** *Erakusketa interesa, zure ikastetxearendako: 8*
  Bereizi nahi zen erakusketak berez eduki zezakeen interesa, eta ikastetxearendako eduki ahal zuena. Ia ez da aldaketarik ematen batetik bestera; beraz, esan daiteke erakusketa egokia zela ikasleen maila kontutan hartuta (gehienak DBHkoak).
- **3. galdera:** *Erakusketa ikusi zuten ikasleen kopurua, gutxi gora behera: 1.430*
  Ikasleen kopurua aipagarria da, baina ez da agertzen erakusketa ikusteko aukera izan zuten pertsonen kopuru totala. Goian agertzen den kopuruari, herrietako biztanleak gehitu behar zaizkio (ikastetxe desberdinetako ikasleen gurasoak kasu gehienetan, edota, atsedeneko orduak probestuz, erakusketa modu librean ikusi zuten beste ikasleak, bisita antolatuetatik kanpo).
- **4. galdera:** *Erakusketa ikusi zuten ikasleen portzentua, ikastetxe desberdinetako ikasleen kopuru osoaren barruan: %70*
  Datu honek zera adierazten du: merinaldeko DBHko ikasle ia guztiak pasa direla erakusketatik.
- **5. galdera:** *Triptiko hedatzailearen interesa: 7*
  Balorazioa berez ez da txarra, baina ezin esan daiteke aurretik espero zen helburua bete zenik. Triptikoa erabiltzeko autonomia, erabilpen erraztasuna, galderen edukia eta maketazioaren garbitasuna ez ziren suertatu espero bezain erakargarriak.
- **6. galdera:** *Triptikoa erabili duten ikasleen kopurua: 907.*
  Balorazio desberdin hau ikasleek triptikoari eman dioten erabilpenean islatzen da. Nahiz eta ikastetxeek ikasle guztiendako haina triptiko jaso, bakarrik hirutatik bik erabili zuten, bai erakusketara joan aurretik, erakusketan zehar eta ondoren eginiko jarduaretan.
- **7. galdera:** *Hitzaldiaren interesa: 9*
  Antolatzaileen harridurarako, hobekien baloratu zen atala izan zen.

Azken balorazio gisa, argi utzi nahi dugu proposamenak zituen bi helburuak sobera bete zirela: hau da, ikastetxe guztietako ikasleek inguruneko ondare artistikoa balioztatzen duen erakusketa baten berri eman eta gozatzea, eta Lizarraldea BHIren 25. urteurreneko ekitaldien barruan, ikastetxearen kanpo proiekzioari laguntzea.

### 6. Iragarki-taulak ikastetxean behin-betiko paratzea

2001-2002 ikasturtearen hasierarekin bat eginaz, iragarki-taulak behin-betiko kokapen batean paratu zituzten. Horretarako, erabili ahal daitezkeen tokien azterketa zehatz bat egin eta gero, ohiko pasabideetan edo iluminazio handiena duten tokietan kokatzea erabaki zen, beroiek hobeto ikusiak izan daitezen.

Erakusketaren aurkezpen iragarki-taula ikastetxeko sarreran paratu da behinbetikoz, sarrerako ateen eta atezainek duten espazioaren ondoan.

Ikastetxeko eskailera handian, ikasleak lehen solairutik bigarrenera pasatzeko erabiltzen dutena, horma zabalak ditu eta bere iluminazioa nahiko ona da.

Han paratu dira Historiaurreari, Baskoiak eta Erromanizazioari, Erromanikoa eta Donejakue Bideari, Gotikoari eta Berpizkundeari dagozkion iragarkitaulak.




Gaur egun ere, ia bost urte geroago, erakusketaren aurkezpen iragarki-taulak ikastetxeko ataria atontzen du

Ikastetxeak baditu ere lehen eta bigarren solairutik ikusi ahal daitezkeen sabaileihoak, honelako iragarki-taulak paratzeko bereziki egokiak. Kareztatutako horma zabalak eta sabaileihotik sartzen den bahetutako argiak Barrokoa zein Rococo eta Neoklasiko garaiak aztertzen dituzten iragarki-taulei alde batetik, eta bestetik, “Eklektizismoa” eta “Modernotasunaren bila” deitzen direnak.

Gaur egun, iragarki-taulek bi betebehar dituzte. Bata, espazioak edertu eta merinaldeko arte ondarea ikasleei hurbiltzea. Bestea merinaldeko artearen elementu esanguratsuetako batzuk ikusteko parada ematea, eta horri esker hainbat irakasgaietan eskatutako ariketak egitea (DBHko Giza Zientziak, Geografia eta Historia, eta Batxilergoko Nafarroako Geografia eta Historia zein Arte Historia).




Lehen arte garaiei dagozkien iragarki-taulek eskailera nagusian jarraitzen dute, eta ikasle zein irakasleek egunean zehar egiten dituzten ibilietan laguntzen diete.




Sabaileihoak, kareztatutako horma zabalekin eta goitik datorren bahetutako argiarekin, iragarki-taulak jartzeko toki egokia dira.




Iragarki-taulek duten kontserbazio egoera ona aipatzekoa da, ikasleek duten begirunea eta hezkuntza mailaren erakusgarri.



# VI. MERINALDEAREN ZERBITZURA DAGOEN ERAKUSKETA BAT

## 1. Proiektuaren jarraipena

Iragarki-taulak behin-betiko ikastetxeko hormetan paratu ostean, bazirudien azaldu dugun proiektu hau amaitu eginen zela. Baina, arrazoi ezberdinak direla medio, proiektua luzatu egin da denboran hasiera batean aurreikusten ez ziren bi aldagai sortu zirelako, biak hala biak proiektuaren helburuekin lotuta zeudenak. Ondorengo orrialdeetan, bi ekimen horien garapenaren zertzelada nagusiak azaltzen dira, xehetasunetan erori gabe.

Ikertu berri dugun proiektuak bi gauza utzi zituen agerian: Lizarralde Ikastetxe eta Lizarraldea BHIko arduradunen artean lorturiko koordinazio ona lanaren fase guztietan, eta erabilitako metodologiaren baliagarritasuna (erakusketa – hi-



Eulate leiho erromaniko ia ezezagunak bikain laburbiltzen du proiektuaren helburua: ondare eder bat jakitera ematea, mende luzeetako herentziaren emaitza.




Berriro ere, Ramoko Joan Donearen arkua, tente eta tinko, Artea eta Kultura izeneko erakusketaren iragarki-taula edertzen du; erakusketaren zioa gure ondare aberatsaren testigantza merinaldeko herri ezberdinetara eramatea zen.

tzaldia ereduan oinarritua), beti ere bi erakundeek konpartitutako helburu batekin: alegia, merinaldearen ondarea hedatzea.

Horregatik, eta lortutako emaitza kontutan hartuta, ez zen batere harrigarria izan Lizarralde Ikastetxeko arduradunek *Lizarra – Herria, gure inguruari begirada* erakusketako iragarki-taulak eskatzea, antzerako ekimen baterako oinarrizko material gisa, baina kasu honetan ez ikasleei zuzendua, baizik eta merinaldeko herritarrei zuzendua.

Oraingo honetan, ekimenaren pisua Lizarralde Ikastetxeak hartzen zuen eta Institutuak bere laguntza eskaintzen zion. Beste behingoz, proiektu honen inguruan Lizarralde Ikastetxeak bilatutako helburuetako hiru gauzatzen ziren: merinaldeko kultur ondarea Lizarraldea osatzen duten herri ezberdinetako gizon-emakumeen artean hedatzea; gure lurraldeko kultur ondarea ezagutzeko, zaintzeko eta hedatzeko ahalegina egiten duten hainbat pertsonen ahalegin kolektiboa koordinatzea; eta merinaldean zehar antzerako ekimenak burutzen dituztenekin harremanetan jartzea elkarlana eta ekintzak elkarrekin egitea ahalik eta gehien indartzea.

Erakusketa merinaldeko udal eta kultur etxe ezberdinei eskaini zitzaien. Bai herri agintariek, zein hiritarrek, gogo onez hartu zuten ekimen hau.

Lizarran ireki eta gero, erakusketa Donibane Garazira eraman zuten, Lizarrarekin anaituta dagoen hirira baita, eta Lizarraren ordezkatu zuen anaitasun ekintzetan egindako jarduera kulturaletan.

### 2. Erakusketaren edukia

Erakusketa honetarako, goian aipatutako hamar iragarki-taulak erabili ziren. Garai bakoitzari buruzko informazioa, beronen elementu adierazgarrienak erakusten dituzten tamaina handiko argazkiekin osatzen da.



Harrerako abere itxurako tesera, Vianan aurkitua eta K.a. II.-I. mendeetan kokatzen dena, ze bere umiltasunean, mundu aurrerromatarraren konplexutasun geroz eta handiagoaren testigantza ematen digu.

## 1. HISTORIAURREA

- Harrerako abere itxurako tesera, K.a. II.-I. m., Viana.
- Gerrikoaren krisketa, K.a. II.-I. m., Viana.
- Ornoan sartutako gezi punta, K.a. 2.650 ingurukoa, Longar (Viana).
- Oin torneatua duen ontzi zeltiberiarra, K.a. II.-I. m., La Custodia (Viana).



- Zubia duen abere itxurako fibula, K.a. II.-I. m., Viana.
- Kono itxurako kanpai txikia, abere itxurako errematateekin, K.a. II.-I. m., Viana.
- Lau fibula: hispaniarra behatzekoa, zalditxo bat, txerri edo basurdea eta simetriko bat, K.a. II.-I. m., Viana.
- Brontzezko apaindura piezen bilduma, K.a. II.-I. m., Viana.



Oin torneatuko kopa zeltiberiarra, La Custodian (Viana) aurkitua.

## 2. BASKOIAK ETA ERROMANIZAZIOA

- Annia Buturraren estela, Gastiain.
- Octaviaren estela, Villatuerta.
- Andelosko presa, Oteitza.
- Alcanadreko akueduktua, Lodosa.
- Erromatar galtzada, Girgillano.
- San Tirsoko miliarioa, Oteitza.



San Tirsoko aitzin erromatar herrixka, Oteitzan dagoena, lurralde honen erromanizazio prozesuaren indarraren erakusgarri da.



Guirguillanoko erromatar galtzada.

## 3. ERROMANIKOA ETA DONEJAKUE BIDEA

- Ruako Pedro Donearen kalostrapea, XII. mendeko 2. zatia, Lizarra.
- Jorge Donearen monasterioko absidea, XII. mendeko 1. zatia, Azuelo.
- Prozesioko gurutzea (Kristoren burua), XII. mendeko 2. zatia, Villamayor de Monjardín.
- Hilobi Santuko eliza (kanpoaldea), XII. mendeko 2. zatia, Torres del Río.
- Nafarroako Erregeen jauregia, XII. mendeko 2. zatia, Lizarra.

- Amabirjinaren eskultura (Ruako Pedro Donearen eliza), XII. mendeko 2. zatia, Lizarra.
- Amabirjinaren eskultura (San Migel eliza), XIII. mendea, Oteitza.



XII. mendeko nafar erromanikoaren adibide ederrenetariko eta ezezagunetariko bat, Azueloko Jorge Donearen monasterioa, non eliza bakarrik mantentzen den zutik, gaur egun herriko parrokia delarik.



Irantzuko Amabirjina, Allinibarrean, merinaldean zehar aurki dezakegun Amabirjinaren irudi-sorta ugari eta aberatsaren adibidea da.

## 4. GOTIKOA

- Miguel Donearen eliza (barrualdea), XII.-XIII. mendeak, Lizarra.
- Irantzuko monasterioa (kalostrapea), XII.-XIII. mendeak, Abartzuza.
- Irantzuko monasterioa (eliza), XII.-XIII. mendeak, Abartzuza
- Ramoko Joan Donearen irudia (Maria Donearen eliza), XIV. mendeko 1. zatia, Viana.
- Margo gotikoa, XIV. mendea, Villatuerta.
- Harresiaren zatia, XIV. mendea, Torralba del Río.
- Amabirjinaren eskultura, XIV. mendearen 1. zatia, Etxabarri (Allinibar).

## 5. BERPIZKUNDEA

- Maria Donea elizaren dorrea (platereskoa), XVI. mendeko 2. zatia, Los Arcos.
- Iratxeko monasterioaren dorrea (herreriar estiloa), XVI. mendeko 2. zatia, Aiegi.
- Iratxeko monasterioaren kalostrapea (berpizkundea), XVI. mendeko 2. zatia, Aiegi.
- Parroki elizako itxurazko erretaula (berpizkundea), XV. mendea, Arellano.
- Prozesioetako gurutzea (berpizkundea), XVI. mendeko 2. zatia, Zirauki.





Los Arcosko Andre Mariaren Elizaren koruko oholtza.

- Jorge Donearen erretaula (platereskoa), XVI. mendeko 1. zatia, Allo.
- Koruko eserlekuak. Maria Donearen eliza, XVI. mendeko 2. zatia, Los Arcos.
- Gurutzadura (platereskoa), XVI. mendearen 2. zatia, Aramendia.

## 6. BARROKOA

- Errekoleten komentuko fatxada, XVIII. mendeko 1. zatia, Lizarra.
- Erremedioen eta Mirariaren Amabirjinaren baseliza, XVIII. mendearen 1. zatia, Lukin.
- Sortzez Garbiaren koadroa (Udaletxea), XVII. mendearen 2. zatia, Lizarra.
- Jauregi-etxea, XVIII. mendearen 1. zatia, Sansol.
- Maria Magdalenaren irudia. Maria Donearen parrokia, XVIII. mendearen 1. zatia, Viana.
- Parroki elizaren dorrea, XVIII. mendea, Desoio.
- Paulo Donearen Bihurtzearen horma-irudia. Maria Donearen parrokia, XVIII. mendearen 2. zatia, Los Arcos.



Amabirjina, Lizarrako Udala.



Aitzinako armarridun etxeen sendotasuna eta edertasuna agerian gelditzen da Sansoleko jauregi-etxean, XVIII. mendeko 1. zatiko eraikuntza bikaina.

## 7. ROCOCO ETA NEOKLASIKOA

- Gregorio Donea Ostiakoa baselizaren fatxada (rococo), XVIII. mendearen 2. zatia, Sorlada.
- Parroki elizaren erretaula nagusia (rococo), XVIII. mendearen 2. zatia, Lukin.



Gregorio Donea Ostiakoaren elizaren atariak duen ugaritasuna, rococo nafarraren obra bikainetariko bat, are eta ederragoa suertatzen da eraikia izan zen tokiagatik, Berrueza bailararen zein Los Arcos inguruko lurralde lauen gainean dagoen muino batean.

San Migel. Oteitzako erretaula.



- Migel Donearen irudia (erretaula nagusia), (rococo), XVIII .mendearen 1. zatia, Oteitza.
- “Maskorren” Etxea (rococo), XVIII. mendearen 2. zatia, Lizarra.
- Parroki elizaren erretaula nagusia (neoklasikoa), 1800. ingurukoa, Sansol.
- Kapera (neoklasikoa), XIX. mendearen 1. zatia, Arintzano.

## 8. EKLEKTIZISMOA



Alloko atari neoklasiko zurruna, XIX. mendean zehar erabili izan ziren estilo ezberdinen adibide bitxia.

- Vega del Pozoko Kondesaren Jauregiko Atea, XIX. mendeko 2. zatia, Deikaztelu.
- Joan Donearen elizako fatxada, XIX. mendeko 1. zatia, Lizarra.
- Parroki elizaren fatxada, XIX. mendeko 1. zatia, Allo.
- Pio Etxea (Kale Nagusia), XIX. mendea, Lizarra.



- Udaletxearen ataria, XX. mendearen 1. zatia, Lizarra.
- Alfontso XII.aren koadroa (udaletxea), XIX. mendearen 2. zatia, Lizarra.

## 9. MODERNOTASUNAREN BILA (XX. MENDEA)

- Eva biluzik (Gustavo de Maeztu Museoa), XX. mendearen 1. zatia, Lizarra.
- Puyko baseliza, (Victor Eusa), XX. mendearen 1. zatia, Lizarra.
- Zudairiko koloniak (Victor Eusa), XX. mendeko 2. zatia, Zudairi (Ameskoabarren).
- Udal liburutegia (zaharberritutako eraikina), XX. mendeko azken herena, Lizarra.
- Industria-nabea (Lizarra Grafikak), XX. mendeko azken herena, Villatuertako poligono industriala.
- Arintzanoko Jaurerriko ardandegia (Rafael Moneo), 2000, Rafael Moneo.



Gustavo de Maezturen "Eba biluzia"n ongi ageri da Gerra Zibilaren ondotik Lizarran finkatu zen pintore horren izaera kosmopolita.



Puyko basilikaren.



Naturaren eta arkitekturaren arteko uztarketa bikaina agerian gelditzen da Moneo tuterarraren eraikuntza gizatiarretan, zeinen Arintzanoko ardandegia adibide on bat den.



## AZKEN OHARRAK

Amaitzen ari garen honetan, ateratako zenbait ondorio azpimarratu nahiko genituzke, eta antzerako ekimenak burutzeko jarraibideak iradoki.

Sarreran esan dugun bezala, proiektua gelan lortutako esperientzia zuzenaren ondorioa da, eta ondorioz, dituen akatsak akats, hezkuntza plangintzako adibide bat da, non jardueren parte handi bat programatuak, eginak, ebaluatuak eta bilduak izan diren.

Proiektuak osotasun bat lortzeko asmoa du zentzu bikoitz batean. Alde batetik, prozesuaren fase guztiak jasotzen ditu: helburuen diseinua eta finantzapenaren bilaketatik hasi, iragarki-taulen eta irteeren buruketatik pasatuz, eta iragarki-taulak ikastetxean finkatzean amaituz. Bestetik, proiektua ez da ikastetxeko ikasleekin lan egitera mugatzen, baizik eta kanpora proiektatzen da, inguruneko hiritargoari zerbitzu bat emateko asmoarekin, baita irakasleei ere, beste eskualdeetan edo alorretan errepikatu daitekeen adibide gisa.



Zangozako Andre Mariaren atariko errementariaren irudiak irakaslearen lana ongi sinbolizatzen du. Lehengaia (gizakia, alajaina!) izerdi eta ahaleginarekin moldatu behar da.

Diziplina anitzetako pertsonez osatutako talde baten lanaren emaitza da, bai jatorrian zein jakin-nahietan eta

zaletasunetan. Taldeko hiru partaideen elkarlanari, beste irakasle batzuek hitzaldiak emateko orduan emandako laguntza eta ikastetxeko beste irakasleen zein administrazio eta zerbitzuko pertsonalaren hitzaldietan eta irteeretan izandako presentzia gehitu beharko genioke. Horri esker, proiektua ez da batzuen ondare gisa hartua izan, baizik eta Institutuarena bere osotasunean.

Ekimenaren funtsezko ardatza ikasleria izan da, ez soilik izaera humanistikoko ikasketak egiten dituena, baizik eta institutuko ikasleri guztia. Zentzu horretan, euren presentzia jarraia, iritziak eta lan koadernoetan egin duten proiektuaren jarraipena, izan dira egileendako ebaluaziorik hoberena. Berea egin duten proiektu batean inplikatzeko gaitasun honi esker ulertzen da nola gaur egun ikastetxeko hormetan paratuta dauden iragarki-taulak hain ongi gordeak dauden.

Programa oinarrizko premisa batetatik abiatzen da: hezkuntza inguruneak ematen dituen aukerez baliatu behar da. Hori dela eta, ez da harritzekoa artean eta kulturan hain aberatsa den ingurune batean, ingurune hori ezagutzeko, ikertzeko, baloratzeko eta ondorioz, hezkuntza prozesuari fisikoki laguntzeko balio duen ekimen bat planteatzea.

Monumentuen eta artearen presentzia argazkian ikusten den bezain bistakoa bada, ikasleria ingurunea ezagutu eta preziatzeko egiten diren jardueretan nahiko erraz "bustitzen" da.





Esperientzia hau ikastetxeak bilatzen duen helburuetako bat egi bihurtzeko beharraren adibide praktiko bat da: "ingurune naturalarekiko eta kulturalarekiko maitasuna eta ezagupena indartu, bere kontserbazioan eta hobekuntzan lagunduz kultur eta eskolaz at egindako irteeren bitartez".

Programak erakutsi digu merinaldeko beste kultur eta gizarte erakundeekin egindako elkarlanaren bideragarritasuna eta egokitasuna. Lizarralde Ikastetxearekin edukitako harreman ezin hobeaz gain, inguruko bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko zein kontzertatuekin sortutako loturak gehitu behar dira, beste erakunde batzuez gain, zeinekin edukitako harremana lehenengo eta bere jarrera ona gero, ekimenaren finantzapena posible egin zuen.

Programari esker, ikusi ahal izan da, testuinguru egoki batean (ikastetxearen sorreraren 25. urteurrenean), ospakizunak ez direla ekimen burokratikoetara mugatu behar, baizik eta baliatu ahal daitezkeela ospakizun bera baino gehiago luzatu daitezkeen zenbait ekimen aurrera eramateko eta honela, ikastetxearen barne bizitza bizkortu.

Komunikabideekiko isolamendu edo axolagabetasun jarrera bat mantendu beharrean, gure ikastetxeen bizitzan oso ohikoa dena, esperientziak garrantzi berezia eskaini dio ikasleriaren jardueren kanpo proiekzioari. Prozesuaren fase guztiak eskualdeko zein Nafarroako komunikabideetan bilduak izan dira, horrekin, ikastetxeak kanpora begira emandako irudia baikorra izateaz gain, ikasleriak ekimena gehiago eta hobeki baloratzen lagundu zuelarik.

Aipatutako lehen bi printzipioak, ikastetxea prestakuntza ardatz bezala eta taldeko lanaren indartzea, aurkezten dugun esperientzia honen jarraibidea izan dira, eta beraz, azaldutako printzipioen aplikazio praktiko bat da.

Bukatzeko, lan honek gure hezkuntza gurarien laburpena egiten duen arren, azken konfidentzia egin nahiko genuke: esperientzia honi esker, gure irakasle lanarekin gozatzen jarraitu ahal izan dugu, gelako eguneroko lanean hori lortzea zaila bada ere. Eta bide batez, bere bizitzaren eta aisialdiaren parte handi bat gure kultur ondarearen edertasuna hiritarrei helarazten saiatu diren pertsonekin harremanetan jarri ahal izan gara, irakasleak izan ala ez.




Heztea irakastea baino askoz gehiago da. Gizabanakoaren ahaltasun guztiak abiaraztea suposatzen du eta bere garapen osoa ahalbideratzen duen testuinguru batean txertatzea da.

